

**2022ko deialdia diru laguntzen ekintzaileei laguntzeko ENPRESA-IDEIA bat garatzeko (APEI)**

**Nori dago zuzenduta:**

**Ekintzaileak, negozio-ideia bat izanik**, jardueraren edozein arlotan, berau aztertu eta garatu nahi dutenak, berariazko arduraldi erregimenean, erakunde laguntzaileak ikuskaritzapean eta tutoretzapean. Lanbide-EEZK aurretiaz emango du eginkizun horietarako baimena. Sustatzaileak arduraldi eskusiboaren betekizuna betetzen duela ulertuko da, baldintza hauek betetzen baditu: diruz lagundutako aldi guztian lanaldi osoan 27 egun baino gehiago lan ez egitea edo lanaldiaren % 30 baino gehiago lan ez egitea. Ondorio horietarako, lan egindako eguntzat zenbatuko dira Gizarte Segurantzaren alta emanda egin dituen egunak. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, zenbatu beharreko egunak hauek izango dira: alta-egunak bider kontratatutako lanaldi-ehunekoa.

**Eskakizunak:**

- EAEn erroldatuta egotea eta benetan bizitzea
- Langabezian egotea eta Lanbide-EEZn enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea.
- Erakunde laguntzaile baimenduetako baten aholkularitza-prozesuan sartuta egotea.
- Enpresa edo negozio berri bat edozein jarduera-arlotan garatzeko ideia bat izatea
- Aurreko urtean alta emanda ez egotea ez Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian ere
- Enpresa-ideia aztertzeko eta garatzeko zereginetan arduraldi eskusiboan jardutea.
- Enpresa-ideia sortze eta garatze aldera deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek definitutako aholkularitza emateko eta laguntzeko jarduera guztietara bertaratzea
- Xede horretarako beste diru-laguntzarik jaso ez izana
- Aurreko deialdietan, enpresa-ideia bat garatzeko edo enpresa-jarduera berriak abian jartzeko laguntzen onuradun ez izatea (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ekintzaileei laguntzeko kudeatu dituen deialdietan jasota dauden laguntzak)
- Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea

**Eskabidearekin batera, ZUZEN SINATURIK dagoela, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:**

⇒ Eskatzailearen NAN/AIZren fotokopia

- ⇒ Errolda-ziurtagiria, edo datu horiek elektronikoki egiaztatzeko baimena
- ⇒ Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, eskatzaileak laguntza eta/edo tutoretzako programan parte hartzen duela egiaztatzen duena; laguntza eta/edo tutoretzako planean aurreikusitako jarduerak jasoko dira bertan
- ⇒ Lan-bizitzari buruzko txostena, laguntza-prozesuaren hasiera-datan eguneratua
- ⇒ Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dauzkatela egiaztatzen duten ziurtagiriak
- ⇒ Erakunde laguntzailearen ziurtagiria (NANaren fotokopia eta errolda-ziurtagiria, edo datu horiek elektronikoki egiaztatzeko baimena aurkeztu ondoren)
- ⇒ Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, aholkularitza-prozesu batean sartuta dagoela egiaztatzen duena
- ⇒ Erakunde laguntzailearen ziurtagiria (Lan-bizitzari buruzko txostena, laguntza-prozesuaren hasiera-datan eguneratuta aurkeztu ondoren)

- 
- NANaren fotokopia.
  - EAEko errolda-ziurtagiria edota erroldako datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena.
  - Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, eskatzaileak laguntza edota tutoretzako programan parte hartzen duela egiaztatzen duena; laguntza edota tutoretzako planean aurreikusitako jarduerak jasoko dira bertan, bai eta prozesuaren hasiera-data ere.
  - Lan-bizitzari buruzko txostena, laguntza-prozesuaren hasiera-datan eguneratua.
  - Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dauzkatela egiaztatzen duten ziurtagiriak
  - LANBIDEn lan-eskatzaile izena emanda egotea.

### **Informazio xehetua:**

[EBAZPENA, 2022ko ekainaren 22koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, ekintzaileei laguntzeko 2022ko dirulaguntzen deialdia argitaratzeko dena.](#)

### **ESKAERA-INPRIMAKIA**

[https://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda\\_subvencion/benefit\\_20227113309558/procedures/proc\\_202271133044506/eu\\_def/adjuntos/ANEXO-III-EUS-2021-AMPLIADO.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda_subvencion/benefit_20227113309558/procedures/proc_202271133044506/eu_def/adjuntos/ANEXO-III-EUS-2021-AMPLIADO.pdf)

## 2022ko deialdia ENPRESA-PROIEKTU berriak abian jartzeko laguntzak (APEA)

### Nori dago zuzenduta:

Ekintzaileak, negozio-idea bat izanik, jardueraren edozein arlotan, berau aztertu eta garatu nahi dutenak, berariazko arduraldi erregimenean, erakunde laguntzaileak ikuskaritzapean eta tutoretzapean. Lanbide-EEZk aurretiaz emango du eginkizun horietarako baimena. Sustatzaileak arduraldi eskusiboaren betekizuna betetzen duela ulertuko da, baldintza hauek betetzen baditu: diruz lagundutako aldi guztian lanaldi osoan 27 egun baino gehiago lan ez egitea edo lanaldiaren % 30 baino gehiago lan ez egitea. Ondorio horietarako, lan egindako eguntzat zenbatuko dira Gizarte Segurantzari alta emanda egin dituen egunak. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, zenbatu beharreko egunak hauek izango dira: alta-egunak bider kontratatutako lanaldi-ehunekoa.

### Eskakizunak:

- EAEn erroldatuta egotea eta benetan bizitzea
- Langabezian egotea eta Lanbide-EEZn enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea
- Erakunde laguntzaile baimenduetako baten aholkularitza eta laguntza jasotzeko prozesuan sartuta egotea
- Bideragarritasun-plan bat izatea enpresa edo negozio berri bat abian jartzeko.
- Aurreko urtean alta emanda ez egotea ez Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian ere.
- Eskusiboki enpresa edo negozioa martxan jartzeko jardueretan aritzea.
- Deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek enpresa edo negozioa ezartzeko zehaztutako aholkularitzako eta laguntzako jarduera guztietara joatea.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematea, gehienez ere 3 hilabeteko epean, negozioa abian jartzeko diruz lagundutako tutoretza eta laguntzako prozesua amaitzen denetik zenbatzen hasita
- Xede horretarako beste diru-laguntzarik jaso ez izana.
- Aurreko deialdietan, enpresa-jarduera berriak abian jartzeko laguntzen onuradun ez izatea (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ekintzaileei laguntzeko kudeatu dituen deialdietan jasota

dauden laguntzak)

- Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea

**Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:**

- ⇒ Eskatzailearen NAN/AIZren fotokopia
- ⇒ Errolda-ziurtagiria, edo datu horiek elektronikoki egiaztatzeko baimena
- ⇒ Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, eskatzaileak laguntza eta/edo tutoretzako programan parte hartzen duela egiaztatzen duena; laguntza eta/edo tutoretzako planean aurreikusitako jarduerak jasoko dira bertan
- ⇒ Lan-bizitzari buruzko txostena, laguntza-prozesuaren hasiera-datan eguneratua
- ⇒ Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dauzkatela egiaztatzen duten ziurtagiriak
- ⇒ Erakunde laguntzailearen ziurtagiria (NANaren fotokopia eta errolda-ziurtagiria, edo datu horiek elektronikoki egiaztatzeko baimena aurkeztu ondoren)
- ⇒ Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, aholkularitza-prozesu batean sartuta dagoela egiaztatzen duena
- ⇒ Erakunde laguntzailearen ziurtagiria (Lan-bizitzari buruzko txostena, laguntza-prozesuaren hasiera-datan eguneratuta aurkeztu ondoren)
- ⇒ EJZn alta eman izanaren kopia
- ⇒ Erakunde laguntzailearen ziurtagiria (Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dauzkatela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu ondoren)

-----

- NANaren fotokopia.
- EAEko errolda-ziurtagiria edota erroldako datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena.
- Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, eskatzaileak laguntza eta/edo tutoretzako programan parte hartzen duela egiaztatzen duena; laguntza eta/edo tutoretzako planean aurreikusitako jarduerak jasoko dira bertan, bai eta prozesuaren hasiera-data ere.
- Lan-bizitzari buruzko txostena, laguntza-prozesuaren hasiera-datan eguneratuta.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dauzkatela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- **LANBIDEn lan-eskatzaile izena emanda egotea.**

### Informazio xehetua:

[EBAZPENA, 2022ko ekainaren 22koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, ekintzaileei laguntzeko 2022ko dirulaguntzen deialdia argitaratzeko dena.](#)

### ESKAERA-INPRIMAKIA

[https://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda\\_subvencion/benefit\\_202271132590158/proc\\_edures/proc\\_202271132819948/eu\\_def/adjuntos/ANEXO-III-EUS-2021-AMPLIADO.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda_subvencion/benefit_202271132590158/proc_edures/proc_202271132819948/eu_def/adjuntos/ANEXO-III-EUS-2021-AMPLIADO.pdf)